

telebista ♦ irratia

Tvpi.fr Ipar Euskal Herriko web telebista jartzen ari da pixkanaka

Egingaiak finkatu eta bide zuzenaren xerkatzen iragan ditu bere lehen bi hilabeteak

Nora Arbelbide / Baiona

Tvpi.fr Euskal Herriko lehen web telebistak bere lehen bi hilabeteak iragan ditu. Baionan dituen bulegoetatik, hemengo berriak jorratu eta mundu guzira hedatzen ditu. Egingaiak finkatu, sail berriak asmatu... hasiera hau beren bidea aurkitzen iragan dute.

«HASTEa zaila da beti; Interneten bidez ikusten ahal den lehen telebista pribatua gara, Euskal herriko lehena gainera, eta ez genekien xuxen nondik nora joan. Orain ongi jarriak gara, baina beti segitzen dugu xerkatzen, ideiak berriak eraiki behar dira beti aitzinatzeke», azaldu zuen Beñat Cabrol Tvpi.freko kazetariak.

«Orain arte aurkitu ditugun zailtasunak, telebista normalek dituztenak dira. Irudiak egin behar ditugu eta horregatik ezin ditugu prentsaurreko normalak filmatu, beste zerbaite aurkitu behar dugu», esplikatu zuen Beñat Cabrolek.

Telebista honekin, normalekin ez bezala, hasieratik egin erreportaia guziak



BOB EDME

Euskal Herriko Internet bidezko lehen telebista pribatua da aurten sortu duten Tvpi.fr.

aurkitzen ahal dira pantailan. Begiraleak ikusi nahi duena hauta dezake. «Geroan, telebista guziak horrela eraikiak izanen dira, hain da erraza, ez duzu itxoin beharrik, segidan begipean duzu zure gustuko emankizuna. Irudiaren kalitatea, ez da biziki hona, baina laster gauzak aldatuko dira», zehaztu zuen Cabrolek.

Egunero bi hiru erreportaia egiten dituzte eta


horietarik %20 euskaraz eginak dira. Gaiak batez ere Ipar Euskal Herriari lotuak dira. Nahas mahas, Etsaiak taldeak Hazparden eman zuen kontzertua, Surfa, Donostiako zinemaldia, Baionako bestak, departamenduari buruzko eztabaida eta abar.

Internet mundu guzira zabaltzen denez, honekin batera Tvpi.fr ere leku anitzetan ikusi ahalko da.

kanpoko euskaldunentzat

«Munduan zehar hedatuak diren euskaldunek, guri esker, Euskal herri honetako gertakizunak segitzen ahal dituzte. Eskertzeko mezuak errezibitu ditugu, Suitzatik bidaliak, Paristik eta abarretik. Laster, Kanpoko euskaldunak izeneko sail bereziaren irekitzea pentsatzen dugu», gehitu zuen Cabrolek.

laburrean



Andoni Arratibel elkarrizketatuko dute 'Bertatik bertara'-n

Andoni Arratibel kirol kazetaria Australiatik etorri berria da, 2000. urteko Olinpiar Jokoetatik. Euskal Telebistaren berriemaile berezia izan da Olinpiar Jokotan, eta kirol saioetarako ez ezik, Bertatik bertara saiorako ere hainbat erreportaia egin ditu. Handik kontatutakoak gogoratzear gain, beste bitxikeria batzuk ere kontatuko ditu gaur. Bertatik bertara azalduko ditu, beraz, Australiako bizipenak. Bertatik bertara saioan izango da hain zuzen, Nerea Iriartek elkarrizketa egingo baitio eguerdiko saioan, 14:05ean.

'El Bus' saioak bildutako diru eskaintza baztertu du Caritas erakundeak

Antena3 kateko El Bus lehiaketak jaialdi berezi bat egin zuen Zaragozan eta sarrerekin bildutako dirua Caritas erakundeari eman nahi izan dio. Honek, ordea, ez du diru eskaintza hori onartu, erakunde honen iritziz telebista saio horrek ez baitu ezertan ere lagunduko Caritasek babesten dituen printzipioak bultzatzen. Hau da, Caritasek ez bezala —erakunde honen arabera betiere— El Bus saioak ez du gizarteko jarreretan eta egituretan aldaketarik eragingo edo bultzatuko. Erakunde honek azaldu nahi izan du beste medio batzuen bidez garatzen dituztela beren proiektuak eta barkamena eskatu die El Bus saioa egiten dutenei beren asmoa lehenago agertzerik ez zutelako izan.

txoritxoari mokoka

♦ Ines Intxausti

Harrotasuna eta zinaustea

TELEBISTA piztea eta lotsa sentitzea gauza berbera da. Haurdunaldiak eta abortoak salneurri berean eskaintzen dituztenek —hots Sarda delako berria— badituzte orain arte lurpetik sortu diren hainbat sasi pertsonaia artifizial anodi-noak halako falaziatan aritzeko. Tombola izeneko saioa baino azkoz ere leku zabarragoan erori da Xabier Sarda. Hori bai, kazetari kataluniarrek ez ditu bere platon garatzen den zaramak inolaz ere ukitzen ezta zikintzen ere, Pepe Navarriori gertatu zitzaion bezalaxe. Ezin da elizdebekuan jarri Sardaren profesionaltasuna. Bere ideien berrikuntzazko proposamenak alde batera utzi ezin diren heinean, noski. Azkenekoa, antolajikoa bilakatu da, gainera. Armairu bat jarri

dute berton eta altzari horretatik atera nahi duenari aukera telebisibo zuzena ematen diote. «Kaixo, Joxe Leon naiz, ordiziarra eta auzokideei eta emazteari armairutik atera nahi dudala esan nahi diet». Eta armairutik ateratzearen esangura polisemikoa ezagutzen ez duzenontzat adierazpen domestiko bat egingo dizuet. Iparramerikan, bizitza homosexual ezkutukoa eraman behar zuten hainbat eta hainbat eta hainbat gay-k, behingoz egoera hau saihesteko jendaurrean egiten duten aitorten positiboa kolokialki ilustratzeko esaten dute, nahi-

ko sinbolikoki, «armairutik irtetea». Orain arte CM programan azaldutako armairukideak fikziozkoak ziren. Proposamen berri honen asmoak, berriz, bestelakoa izan beharko zukeen. Hau da, benetako homosexualak izatea bertara eredu sozial bat ematera doazen lagun ezagun eta ezezagunak. «Gabon, Ana Sagasti deitzen naiz eta homosexuala naiz. Nire senide eta herrikide guztiak, lehenbailehen jakin dezatela nire ezau-garri berri hau eta merezitako errespetu eta duintasunez begiratu diezadaten ateratzen naiz harrizko armairu honetatik. Larruzko mihiseria onartzen dut. Nire neurria 48 da». Hori ezer baino lagungarriagoa izango lizatekeela gure herriko konplexu asko saihesteko.